LAUDIO ikastola
Motxotekale, 16
01400 Laudio
Tel. 94 672 67 37
laudio@ikastola.eus
www.laudioikastola.eus

# GREBA DEIALDIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

*Laudio Ikastolako langileek bat egin dute LAB, ELA, ESK, STEILAS, ETXALDE, HIRU eta etxebizitza sindikatuek etxebizitza eta soldata duinak eskatzeko, azaroaren 11rako Hego Euskal Herrian deitutako greba orokor deialdiarekin.*

*Hortaz, datorren asteazkenean, azaroak 11, Ikastolan ez da ohiko funtzionamendua egongo eta ezin izango dira bermatu zuen seme-alaben zaintza egin ahal izateko baldintzak.*

*Izan ere, gaur-gaurkoz Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lana eta Enplegu Sailak ez du grebarako ezinbesteko zerbitzuak ezartzeko agindurik argitaratu. Hortaz, eta azken urteotako greba deialdietan xede horrekin argitaratutako aginduei erreparatuta, Ikastolak ezingo du bermatu ohiko funtzionamendua eta ondorioz, egun horretan Ikastolara ikaslerik ez ekartzea gomendatzen dugu.*

*Lanuzteak barne hartuko ditu Ikastolako eskola jarduera, zerbitzuak, zein eskolaz kanpoko ekintzak.*